

HIZKUNTZEN KUDEAKETARI LOTUTAKO PRAKTIKA ONAK

JASOTZEKO FITXA

ERAKUNDEAREN DATUAK (eskatzen diren 5 eremuak bete mesedez)

Datu hauek eta praktika onen fitxa betetzerakoan, baimena ematen duzu goian agertzen diren eremuak eta betetako praktika onen fitxa Euskaliteko webgunean argitaratzera, modu irekian zabaldu daitezzen.

1. Erakundearen izena:	Artez Euskara Zerbitzua
2. Sektorea:	Hizkuntzen kudeaketa
3. Langile kopurua:	9
4. Webgunea:	artez.eus
5. Erakundearen jardueraren deskribapena: (produktu eta zerbitzu nagusiak, merkatua, bezero motak...):	<p>Artez-en hizkuntza-kudeaketa errazten dugu, berdintasunezko ingurunea eta kalitatezko zerbitzua bermatzeko.</p> <p>SOLUZIOAK:</p> <p>Hiru soluzio nagusitan sailkatuta, hurrengo zerbitzuak eskaintzen ditugu:</p> <p>Hizkuntza kudeaketa</p> <ul style="list-style-type: none">• Erakundeetarako planak• Merkataritza planak• Eragin linguistikoaren ebaluazioa• Itzulpengintza• Trebakuntza <p>Berrikuntza eta euskara</p> <p>Ikastaro berezituak, ikus-entzunezkoak, laguntzea web guneak, aplikazio mugikorra edota kudeaketa programak, besteak beste.</p> <p>e-learning baliabideak</p> <ul style="list-style-type: none">• Eduki digitalak• Interaktiboak• Online trebakuntza: diseinua, ekoizpena eta inplementazioa• Online prestakuntza Plataforma <p>BEZERO MOTAK:</p> <p>Izaera ezberdinetako entitate, erakunde eta enpresarekin egiten dugu lan, eremu publiko zein pribatukoak:</p> <ul style="list-style-type: none">• 3. sektorea• Hezkuntza• Banka• Industria• ...

Harremanetarako datuak

Eremu hauek hautazkoak dira. Datuak betetzen badituzu, webgunean azalduko dira bere horretan. Horrela, zure praktika interesgarria suertatu zaion erakundea zurekin harremanetan jarri ahal izango da:

Solaskidearen izen-abizenak:	Leire Solozabal
Helbide elektronikoa:	lsolozabal@artez.eus
Telefonoa:	944480000

RAKTIKA ONAREN AZALPEN LABURRA

1. Praktika onaren titulua:	Solaside: Hizkuntza ohiturak eraldatzen
2. Praktika onaren azalpena: Zer da? Zertan datza? Nondik dator? Zeintzuk dira onurak, lortu diren emaitzak?	<p>Hizkuntzaren erabileran sensibilizatu eta hizkuntza ohituretan eragiteko diseinatu eta garatutako eduki digitala dugu, ikastaro formatuan, Orein Plataforman inplementatuta.</p> <p>Prestakuntza honetan, partaideari ibilbide pertsonal bat egitea proposatzen diogu: hizkuntzek jendartean duten garrantziaz eta paperaz ohartu, jarrera eta portaeretan eragina duten kontzeptu eta elementuak ezagutu, egiten duenaren gaineko kontzientzia hartu eta, ondo baderitzo, bere hizkuntza ohiturak aldatzen laguntzen diogu.</p> <p>Hizkuntzaren erabileraren gainean kontzientziazio pertsonalean eragin beharra identifikatuta, eskuragarritasuna bermatuko duen edukia garatu genuen, formatu digitalean, pertsonaren proaktibotasuna sustatzen dituen baliabide dinamiko eta erakargarriekin.</p> <p>Prestakuntza hau Artez-eko pertsona guztiek burutzen dute, soziolinguistika oinarri bat ere lantzen baitugu prestakuntza honetan, hizkuntzaren errealitate eta izaeran eragina duten kontzeptu nagusiak azaldu eta lantzen ditugu, eduki interaktiboen bitartez.</p> <p>Horrez gain, kanpora begira, bezeroei ere eskaintzen diegu Solaside ikastaroa, beraien erakundeetako euskararen erabileran eraginkortasun handiagoz eragite aldera. Zentzu horretan, euskara planen baitan jasotako helburuak betetzeko, ekintza zehatz gisa txertatzen dugu ikastaroa, langileen motibazio eta sensibilizazioa landu, eta beraien hizkuntza ohiturak aldatzeko bidea erraztuz. Honek inpaktu zuzena izaten du lan hizkuntza eta zerbitzu hizkuntzan, langileen motibazioa handitu eta protagonismoa areagotuta, emaitza hobeak lortzen direlako.</p>

PRAKTIKA ONAREN INGURUKO DOKUMENTAZIOA, IRUDIAK, GRAFIKAK...

(Hemen itsatsi tresna/dinamika/praktikaren irudiak, dokumentuak, grafikak, eta abar.)

[Sarrera bideoa ikusi](#)

[Ikastaroren informazioa joan](#)

Ikasgaia

02.1. Hausnarketa

Ikasgaiaren aurrerapena: ○○○○○○○○○○



Aurreko unitatean ikusitakoa kontutan hartuta, non kokatuko zenuke euskara? Zein hizkuntza mota da? Zein da Euskal Herrian duen estatusa edo garrantzia?

Hizkuntza normalizatu baten aurrean ote gaude?

Honen gainean sakontzeko, segi aurrera!



Hurrengo ikasgaia →

IKASTAROAREN NABIGAZIOA

Solasbide: Hizkuntza ohiturak lantzen

48-tik 7 urrats osatuta 14%

1. Hizkuntza eta jendartea

2. Hizkuntzen egoera Hego Euskal Herrian

02.1. Hausnarketa ○

02.2. Euskararen bizi garapena ○

02.2.1. Euskararen bizi garapena ○

02.3. Hizkuntza Biziberritzeko Plangintzak ○

02.4. Bideoa / Hizkuntza ikipena Euskal Herrian: ondorioak hiztunengan ○

02.4.1. Hizkuntza ikipena Euskal Herrian: ondorioak hiztunengan ○

02.5. Hizkuntza ikipena Euskal Herrian: ondorio sozialak ○

02.5.1. Hizkuntza ikipena Euskal Herrian: ondorio ○